

Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) gobernu-organoak

Euskal Estatistika Erakundearen organo gorena Zuzendaritza Nagusia da.

Erakundeko zuzendari nagusiari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako eskumenak eta indarrean dagoen araudiaren arabera legozkiokeen gainerako eskumenak erabiltzea.

Zuzendari nagusiak eginkizun hauek ditu:

- a) Erakundea ordezkatzea legez eta judizioz kanpo.
- b) Erakundearen administrazio-zuzendaritza eta jarduerak bultzatu, zuzendu eta koordinatzea.
- c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10.3 artikulua erakunde autonomo bakoitzari langileen arloan esleitzen dizkion eskumenak erabiltzea.
- d) Estatistikako langileen prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak bultzatu, zuzendu eta koordinatzea.
- e) Erakundearen Aurrekontuaren Aurreproiektua proposatzea, ondoren atxikita dagoen Sailak onar dezan.
- f) Institutuaren gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea.
- g) Kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak erabiltzea.
- h) Hitzarmenak eta akordioak sinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren araudi orokorraren esparruan.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoa ofizialki ordezkatzeko estatistikaren arloan.
- j) Estatistika-programen planen eta proiektuen aurreproiektuak egitea.
- k) Euskal Autonomia Erkidegoak estatistikaren arloan Euskal Estatistika Antolakundearekin eta Estatistikako Nazioarteko, Estatuko eta Eskualdeko Institutu eta Erakundeekin dituen harremanak bultzatu eta zuzentzea.
- l) Euskal Estatistika Erakundearen estatistika-jarduera planifikatu, normalizatu eta harmonizatzea.

Euskal Estatistika Erakundearen Zuzendaritza Nagusiaren mende daude honako organo hauek, zuzendariordetza mailakoak:

- a) Koordinazio Tekniko eta Zabalkundeko Zuzendariordetza.
- b) Estatistika Produkzio eta Analisisiko Zuzendariordetza

Oro har, zuzendariordetzei dagokie:

- a) Zuzendariordezaren jarduerak programatzea, bultzatzea, zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea, Erakundeko zuzendari nagusiak finkatzen dituen jarraibideen arabera.
- b) Zuzendariordezari esleitutako baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak zuzendu eta koordinatzea.

Koordinazio Tekniko eta Zabalkundeko Zuzendariordezak eginkizun hauek ditu:

- a) Euskal Estatistika Planean eta Urteko Estatistika Programetan sartutako estatistika-eragiketa bakoitzaren proiektu teknikoak gainbegiratzea eta auditoretza teknikoak egitea.
- b) Institutuaren jardueran aplikatzeko metodologia berriak ikertu eta garatzea, Europako edo nazioarteko izaera horretako proiektuetan parte hartzeari lehentasuna emanez.
- c) Erakundearen informazio- eta telekomunikazio-sistemak diseinatu, garatu, mantendu eta ezartzea; horretarako, dagozkion sistema-planak egingo ditu, eta gai horietan Institutuan erabili beharreko estandarrak proposatuko ditu, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, antolaketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.
- d) Merkatuan dauden produktu informatikoak eta telekomunikazioetakoak ikertzea, Institutuaren jardueran erabil daitezzen.
- e) Estatistika-eragiketen faseetan kalitate-prozedurak ezartzea.
- f) Marketin estatistikoko eta merkatu-azterketako jarduerak egitea, bai eta erabiltzaileen gogobetetzeari buruzko azterlanak egitea ere, eta atzematen diren informazio-beharrak asetzea ahalbidetuko duten azterlanak, analisiak edo estatistika-eragiketak egitea proposatzea.
- g) Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzea Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko estatistika-erakundeekin dituen harremanak koordinatzeko, bai eta unibertsitateekin, komunikabideekin, eragile ekonomiko eta sozialekin, erabiltzaileekin eta Erakundearen bezeroekin dituen harremanak koordinatzeko ere.
- h) Euskal Estatistika Erakundeak erabili beharreko arau, sailkapen, kode eta izendegien sistemak egitea eta mantentzea.
- i) Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideei jarraituz, Institutuaren hedapen-politika ezartzea, dagozkion hedapen-produktuak gauzatuz eta Erakundearen Internet zerbitzariaren edukiak mantenduz eta hobetuz.

- j) Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Estatistikoaren Bankua diseinatu, garatu, mantendu eta ezartzea.
- k) Erakundearen Informazio Zerbitzuaren zuzendaritza, bai egoitza nagusian, bai lurralde-bulegoetan.
- l) Bilketa-izaerako hedapen-produktuak proposatzea eta, hala badagokio, lantzea.
- m) Erakundera egiten diren kanpoko informazio-eskaerak eta laguntza teknikoen eskaerak bideratzea, eta Zuzendariordeztzari dagozkion eskaerei erantzutea.
- n) Estatistika-jatorriko kanpoko informazio-iturrien inbentarioa eta katalogazioa, edo estatistika-erabilera izan dezaketen administrazio-iturriena.
- o) Euskal Estatistika Antolakundearen Estatistika Galdeketen Erregistroa eta Proiektu Teknikoen Erregistroa egitea eta mantentzea.

Estatistika Produkzio eta Analisisiko Zuzendariordeztzak funtzio hauek ditu:

- a) Zuzendariordeztzari esleitutako plan eta programen estatistika-produkzioa proposatu, diseinatu eta garatzea.
- b) Produkzio estatistikoa hobetzeko eta haren kalitatea hobetzeko prozesuak sistematizatzea eta ezartzea.
- c) Azterlanak eta analisiak egitea eta sustatzea, estatistika-informazioan oinarrituta.
- d) Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzea estatistika-erakunde eta -organismoekiko harremanak sustatzeko eta sustatzeko, estatistika ekonomiko eta sozio-demografikoen metodologiaren alderdi teknikoetan jarduera koordinatuak bultzatzeko.
- e) Landa-langileen koordinazioa: informazioa biltzea, kalitate-kontrolak ezartzea, goi-ikuskaritza eta elkarrizketatzaile, araztaile, kodetzaile eta ikuskatzaileen prestakuntza.
- f) Direktorio-fitxategiak diseinatu, inplementatu, landu eta mantentzea.
- g) Estatistiken, adierazle ekonomiko eta sozio-demografikoen eta kontu ekonomikoen sistema integratuak diseinatu, landu eta mantentzea, koiunturazkoak zein egiturazkoak.
- h) Estatistika ekonomiko eta sozio-demografikoen metodologiaren alderdi teknikoei buruzko koordinazioa eta aholkularitza.
- i) Zuzendariordeztzari esleitutako estatistiken proiektu teknikoak egitea.
- j) Zuzendariordeztzari dagozkion kanpo-eskaerei eta laguntza teknikoei erantzutea.